

Ordizian, 2016ko otsailaren 22an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU BATZORDEA, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras
Mila Sukia Galparsoro
Iñaki Dubreuil Churruca

EAJ/PNV
Ordizia Orain
PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Igor Eguren Izagirre

EH Bildu Ordizia

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

Ordizia Oraineko M^a Jesus Soto ere azaldu da.

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2016ko otsailaren 8ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- Hondakinen bilketari buruz herri kontsulta egitea.
- 5.- 2016ko Aurrekontuak.
- 5.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 €tik beherako fakturei buruzko informazioa.
 - Erroldatzeko agiriei buruz Gizarte Ongizateak egindako eskaera.



GALDE-ESKAERETAN SARTUTAKO GAIAK:

. - Erroldako ofiziozko bajen ebazpen epea.

GORABEHERAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:10



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.-2016ko otsailaren 8ko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko otsailaren 8ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.

2.- 6000 €tik gorako fakturak

.- 9. zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 38.239,58.-€

Sukia and.

Bi fakturei buruzko informazioa eskatu du:

- 1.- Jakintza Eskolaren garbiketa.
- 2.-Langileen eta hautetsien Bizitza eta Istripu aseguruak.

Horren berri eman diote.

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- Hondakinen bilketari buruz herri kontsulta egitea.

Dubreuil jauna eta Sukia andrea.

Atez ateko aukera ere herritarrei aukeran eman behar zaiela esan dute. Aukera hori ez jasotzeagatik Hondakinen Mahaiak hartutako erabakiaren aurrean harrিতa daude.



Alkate jn.

Jakinarazi du oraindik ez dakitela zerbitzuak zein gastu izango duen proposatutako edozein bilketa-sisteman.

Bihar, hausnarketa moduan atez ateko aukeraren gaia azalduko da Honakinen Mahaian.

Prozedura dagoeneko onartuta dago.

Komenigarria da kontsultan laguntzeko egongo direnei prozedurari buruzko informazioa ematea.



4.- 2016ko Aurrekontuak.

Alkate jn.

Aurreko astean auzoetan egin ziren topaketetan herritarrek egindako eta aurkeztutako iradokizunen inguruko informazioa eman du.

Aholku Batzordekoekin ere harremanetan dira beraien ekarpenak kontuan izan eta aztertzeko.

Orain, batzuen eta besteen ekarpenekin, talde politiko desberdinei pasako zaie dokumentua hauek beraien emendakinak egin ditzaten.



3.- Txostenak eta hainbat eskari.

.- 6000 €tik beherako fakturei buruzko informazioa.

Ondorengo zerrenden berri eman da: 2015eko 70 eta 71. zkiak, eta 2016ko 6. eta 7. zkiak.

Sukia and.

Ondorengo fakturei buruzko informazioa eskatu du:

- 1.- Errege-kabalgatako fakturak.
- 2.- Ana Irastorzaren Komunikazio faktura.
- 3.- HAPOrako delineazio lanen faktura.
- 4.- Kaldereroen afarirako faktura.



Horren berri eman zaie.

.....

.- Erroldatzeko agiriei buruz Gizarte Ongizateak egindako eskaera.

Foru Aldundiaren idatzia, Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzarekin lotuta errolda kontrolatzeko neurriak har ditzan eskatzen dio Ordiziako Udalari. .

Foru Aldundiak zenbait agiri aurkezteko eskakizuna aztertzeke proposamena egin du, besteak beste, erroldatzean interesduna bera egotea.

Gobernu Batzordean Aldundiaren eskaera aztertu aurretik, gobernu taldeak hartu ditu dagoeneko erroldaren kontrolerako neurri batzuk eta baita ofiziazko baje ingurukoak ere.



Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.

4.- Galde-eskeak.

.- Sukia andreak Biztanleen Udal erroldako ofiziozko baje ebazpen epeari buruz galdetu du.

Idazkari andreak jakinarazi dio prozedura hasi eta baja ebazten den arte gutxi gorabehera 3 edo 4 hilabete inguru igarotzen direla.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.

